

Genero-berrirakurketak berrikusten: kontzeptu normatibotik kritika kokatura¹

Mercedes Bogino Larrambebera

Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Soziologia eta Gizarte Laneko Saila
metxi.bogino@unavarra.es

Paloma Fernández-Rasines

Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Soziologia eta Gizarte Laneko Saila
paloma.fernandez@unavarra.es

Artikulu honek feminismoaren genealogia bat aurkezten du, zeinak kontzeptu normatibo eta kategoria kritiko gisa ulertzen baitu generoa. Horretarako, Sherry Ortner, Gayle Rubin, Joan W. Scott, Jane F. Collier, Sylvia J. Yanagisako eta beste zenbait egileren testu klasikoak aztertzen dira, baina baita egile postmodernoen ekarpenak ere, Judith Butlerrenak, kasurako. Ibilbide bat proposatzen da generoan barrena ikerketa sozialeko kategoria analitiko gisa, eta haren dimensio normatiboa eta indar kritikoa nabarmentzen dira. Lehenik eta behin, Margaret Mead eta Simone de Beauvoirren gogoeta aitzindariak planteatzen dira, haiek jotzen baitira generoa kontzeptualizatu zuten egile aitzindarizat. Bigarrenik, emakume horien proposamen teorikoak aztertzen dira —haiek definitu dute generoa sexualitatearen, gizarte-harremanen eta boterearen arteko artikulazioan—, baita egileok eginiko berrikuspen autokritikoak ere. Azkenik, generoaren zenbait tentsio aipatzen dira ikuspegi epistemologiko eta praktika sozial gisa, eta agerian jartzen da normatibitatearen alorrean duen gaitasun kritikoa —eta, batzuetan, akritikoa—.

Gako-hitzak:

Genealogia feminista, generoa, sexua/ generoa sistema, ahaidetasuna, derrigorrezko heterosexualitatea, subjektibotasun feministak.

Este artículo presenta una genealogía feminista que comprende el género como concepto normativo y categoría crítica. Para ello, se analizan textos clásicos de autoras como Sherry Ortner, Gayle Rubin, Joan W. Scott, Jane F. Collier y Sylvia J. Yanagisako, además de algunas contribuciones de autoras posmodernas como Judith Butler. Se propone un recorrido del género como categoría analítica en la investigación social, destacando su dimensión normativa y potencial crítico. En primer lugar, se plantean las reflexiones pioneras de Margaret Mead y Simone de Beauvoir, consideradas precursoras en la conceptualización del género. En segundo lugar, se exploran las propuestas teóricas de las autoras citadas, que han definido el género en la articulación entre sexualidad, relaciones sociales y poder, así como sus propias revisiones autocríticas. Finalmente, se señalan algunas tensiones del género como perspectiva epistemológica y práctica social, revelando su capacidad crítica y, a veces, acrítica frente a la normatividad.

Palabras clave:

Genealogía feminista, género, sistema sexo/ género, parentesco, heterosexualidad obligatoria, subjetividades feministas.

¹ Testu hau 2017an "Genero-berrirakurketak: kontzeptu normatiboa eta kategoria kritikoa" izenarekin argitaratutako artikuluaen berrikuspen, zabalzte eta itzulpenean oinarritua da (*Revista de Estudios de Género, La Ventana*, 5. bol., 45. zb., 158-185. or., <<https://doi.org/10.32870/lv5i45.5375>>).

1. Sarrera

Mendebaldeko gizarteetan, genero kontzeptua luze-zabal hedatu da XX. mendearen amaieraz geroztik, bai esparru akademikoan, bai komunikabideetan eta erretorika politikoan. Ikus daitekeenez, generoa bilakatu da hizkuntza mediatiko eta politikoan gero eta gehiago hedatzen den hitz berrietako bat, eta lagunarteko hizkuntzara ere heldu da (Nash, 2003). Eguneroko bizitzan, gero eta gehiago hitz egiten da genero-berdintasunaz, genero-ikasketez, genero-indarkeriaz, genero-identitatez, genero-politikez edo genero-ideologiaz. Kategoría konposatu horiek eraikitze bidean, generoa sexuen arteko harremana ulertzeko txertatzen da literatura akademikoan, eta, azken hamarkadetan, "komodin epistemologiko" (Lamas, 2007: 3) edo "leku komun" (Scott, 2011: 95) bihurtu da, zeina definitu eta birdefinitu egiten baita ikertzen duen subjektuaren begiradaren arabera.

Genero terminoa gero eta gehiago erabiltze horrek interpretazio nahasi eta lausoak ekarri ohi dizkigu, eta esanahi desberdinak eta batzuetan kontraesankorrak hartzen dituzte horietako batzuek. Interpretazio desberdinak nagusi diren testuinguru honetan, beraz, zenbait galdera sortzen zaizkigu: zer zentzutan hitz egiten dute generoaz jakintza zientifikoa ekoizten dutenek?, zertarako erabiltzen dugu termino hori ikerketa sozialean? Eta zer-nola laguntzen du generoak harreman sozialak berrinterpretatzen?

Gaur egungo eztabaida akademikoan, askotariko planteamenduak ditugu genero kontzeptuaren inguruan: erabilera eta abusua (Izquierdo, 1998), kontzeptuak nahastea (Lamas, 1995), kontzeptu baten adierabikotasuna (Tubert, 2003), zailtasun eta aukera gramatikalak (Maquieira, 2001), generoaren krisia teoria eta praktika gisa (Braidotti, 2004), generoa botere-bitarteko gisa (Amigot eta Pujal, 2009), genero-kategoriari egindako kritika berriak (Femenías, 2003) edo generoaren gehiegikeriak (Fraisie, 2016). Bestalde, egile feminista batzuek kontzeptuaren berreraikitze genealogikoak ere egin dituzte, berrikuspen teoriko eta metodologikoetan oinarrituta (Butler, 1990; Haraway, 1995; Braidotti, 2000). Zalantzarik gabe, generoa da gizarte-zientzietako haustura epistemologiko garrantzitsuenetako bat. Naturalizat ageri diren giza harremanak aztertze, dikotomiak eta binarismoak eraikitzean ezkutuan diharduten botere-harremanak deszifratzen dira. Genero-definizioak etengabe ugari dira ikasketa feministez harago, eta tresna kontzeptual hori kategoría kritiko gisa erabiltzea, baliagarria ez ezik, kontzeptu normatibo bat ere bada aldi berean (Fassin, 2008).

Artikulu honek ibilbide kritiko bat planteatzen du genero kontzeptuaren sorreran eta hedapenean barrena. Proposamen klasikoak ditugu abiapuntu, gizarte-zientzietako haustura epistemologikoak diren heinean, eta problematizatu egin nahi da terminoa, hedapen eta finkapen partzialki akritikoen aurrean. Artikuluak ikerketa sozialean funtsezkotzat jotzen diren testuak berrirakurtzea proposatzen du, eta, horretarako, sexualitateari, harreman sozialei eta

botereari begiratu dieten egileen gogoetak baliatzen dira. Lehenik eta behin, genero kontzeptuaren aurrekari historikoak deskribatzen dira; bigarrenik, azterlan feministek termino horri emandako interpretazio teorikoak daude identifikatuta; eta, azkenik, generoak normatibitatearen aurrean duen gaitasun kritikoaren eta, batzuetan, akritikoaren arteko tentsio-harreman horren berri ematen da.

2. Generoaren aurrekariak: Margaret Mead eta Simone de Beauvoir

Genero kontzeptuari heltzeko aurrekari nagusietako bat Simone de Beauvoirren *Le deuxième sexe* lana da, 1949an argitaratua. Saiakera-lan horretan, egileak emakumeen mendekotasunaren jatorria aztertzen du, eta arakutzen du, berebat, zer-nola gelditu ziren zokoratuta gizonaen jakintza-alorrak (biologia, psikoanalisi, materialismo historikoa, historia eta mitoak) eraikitzearen poderioz. Maquieiraren hitzetan (2001: 159), "femeninotzat hartzen diren giza ezaugarriak ez dira ustezko biologikotasun batetik eratorriak; prozesu indibidual eta sozial baten bidez geureganatzen dira". Filosofo frantsesaren ustez (De Beauvoir, 1999: 31), "emakumeak, gizaki oro bezalaxe askatasun autonomo izanik, gizona Bestetzat hartzea inposatzen dioten mundu batean aurkitzen eta hautatzen du bere burua, eta horrexek definitzen du emakumearen egoera modu berezian". Hala, emakumei aplikatutako bestetasuna da haren lanaren ardatz tematikoa, eta emakumeek alteritatearen irudikapen gisa duten funtsezko funtzioa azaltzen du: "'beste' pribilegiatu hori ukatuz bakarrik eraiki daiteke subjektu maskulinoa normaltasunaren eta normatibitatearen eredu unibertsal gisa" (Braidotti, 2000: 213).

Margaret Meadek Samoan eta Ginea Berrian 1920 eta 1930 bitartean egindako ikerketa etnografikoak ere generoa kategorizatzearen aurrekari erabakigarriak dira, bestelako ideia berritzaile bat txertatzen baitute garai hartan gizarte-zientzietan nagusi zen ikuspegi biologizistaren aurrean: "giza espeziea izugarri moldakorra izaki, sexu-rolak eta -jokabideak aldatu egiten dira testuinguru soziokultural batetik bestera" (Mead, 1935, hemen aipatua: Stolcke, 2004: 82). Egile horren lana aitzindarizat jo daiteke sexu-arau malguagoak planteatzeari dagokionez; hau da, harremanetarako modu ez hain zurrunik proposatzen ditu, erlijioek eta moralitate fundamentalistek kontrolatutako tokietan izan ezik, horiek ez baitituzte onartu nahi emakumeen estatusen eta sexuen arteko harremanetan izaniko zenbait aldaketa (Tovar, 2018).

Funtsezko bi aurrekari horiek aipatu ondotik, nahitaez ekarri behar da Amerikako Estatu Batuetan 1950eko hamarkadatik aurrera agertzen den *gender* terminoa —psikologiatik, sexologiatik eta medikuntzatik abiatuta sortua— sexu anatomikoa eta sexu soziala bereizteko (Stolcke, 2004). John Money psikologo eta medikuak, *sex roles* edo sexu-rolak hitz egin beharrean, *gender roles* (genero-rolak) terminoa erabiltzen du gaur egun ezagutzen ditugun

intersexualitate-kasuak deskribatzeko zailtasun kontzeptualak ebazten saiatzeko (kasu horiek hermafroditismo gisa adierazi izan dira tradizionalki). Sortzetiko intersexualitate-kasu horietan, berretsi egiten da helburu psikomedikoa, hau da, genital anbiguoak kirurgia normalizatzailearen bidez aldatzea eta, hala, ziurgabetasun oro konpontzea. Hartara, ordeko hormona-tratamenduak emanez, erraztu egiten da genero-rol bitarrak bereganatzea (Lamas, 1986; Stolcke, 2004; Fassin, 2008).

Robert Stoller psikiatra eta psikoanalistak logika horri jarraitzen dio, eta transexualitateak sortzen dituen sailkapen-erronkak ikertzen ditu —hau da, beren jaiotzako sexuarekin identifikatzen ez diren pertsonak ditu aztergai—. *Sex and gender* (1968) liburuan, Stollerrek sexu-identitatearen nahasmenduak aztertzen ditu, eta *gender identity* edo genero-identitatea adierazpena proposatzen du transexualitate eta homosexualitatea bereizteko; hots, gizon edo emakume izateko nahiak eta orientazio sexuala banatzeko (Fassin, 2008; Stolcke 2004; Lamas, 1986). Testuinguru bio-psiko-mediko horretan, intersexualitatea edo transexualitatea medikalizatzeko baliabide gisa sortzen da generoa, eta, ikuspegi horretatik, pisu handia du gizarte-normatibitatean.

3. Sherry Ortner: natura/kultura aurkakotasuna

1970eko hamarkadan, zenbait autore agertuko dira Amerikako Estatu Batuetan. Autore horiek lanaren banaketa sexuarekin oinarritutako mendekotasun femeninoaren unibertsaltasuna eztabaidatzen dute *Women, culture and society* (1974)² liburuan. Haien artean, nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, Michelle Rosaldo (1974), zeinak eredu estruktural bat proposatzen baitu, psikologiaren eta antolaketa sozial eta kulturalaren zenbait alderdi kontuan hartuta, etxekoa/publikoa dikotomiari dagokionez. Bigarrenik, Nancy Chodorowek (1974) dio egitura psikikoaren eraikuntza sozializazioaren esperientzian egituratzen dela, eta, ildo horretan, gaineratzen du nortasun maskulinoaren eta femeninoaren arteko aldeak ez daudela genetikoki programatuta; hau da, egitura horretan faktore sozioestruturalek esku hartzen dutela, biologikoei baino gehiago. Hirugarrenik, beste ekarpen antropologiko batzuen artean, Sherry Ortner (1974) ikertzaileak Simone de Beauvoirren eta Claude Lévi-Straussen eragin teorikoekin aztertzen du emakumea/gizona eta natura/kultura erlazio dikotomikoen artean ageri den homologia. Dikotomia horiek aztertzean —etxekoa/publikoa (Rosaldo, 1974),

maskulinoa/femeninoa (Chodorow, 1974), natura/kultura (Ortner, 1974) eta ugaltzea/ekoiztea (Harris eta Young, 1981)—, aipaturiko egileek “kultura eta egitura sozialean kokatzen zuten emakumeen opresioa, baina haietako askok kopiatu egin zituzten ustez gainditu nahi zituzten joera unibertsalistak eta determinismo biologikoa” (Stolcke, 2004: 83)³.

Ortnerren (1974) “Is female to male as nature is to culture?” artikuluan, emakumeen gutxiagotasuna aurreuposizio gisa hartzen duen pentsamendu kulturala aztertzen da eta egileak hauxe galdetzen dio bere buruari: nola azaldu emakumeen balio-galera unibertsala?, zergatik hartzen dira naturatik hurbilagokotzat? Ortnerren ustez (1979), emakumeen gorputza eta ugaltze-funtzio espezifikoa dira gakoa. Hala, egitate fisiologiko horren barneko hiru esanahimaila zehazten ditu bere azterketan: 1) gorputza eta haren funtzio naturalak; naturatik hurbilago jartzen dituzte emakumeak gizonen fisiologiarekin alderatuta, kontuan izanik gizonen fisiologiak libre uzten dituela kulturari loturiko planei ekiteko; 2) prozesu kulturallean gizonetzkoen azpikotzat jotzen diren rol sozialak; eta 3) egitura psikiko desberdina izatea, eta, emakumeen izaera fisiologikoa eta rol sozialak bezalaxe, naturatik hurbilagokotzat jotzea. Testu horretan, egileak ideia hau garatzen du: emakumeen eginkizuna eraldatzaile izatea da, hau da, naturaren eta kulturaren arteko bitartekaritza hartzen dira, eta prozesu hori funtsezkoa da, natura gizarteratzea eta kulturalizatzea eskatzen baitu. Beste era batera esanda, emakumeek bitarteko estatus bat dute, bitartekaritza-funtzioak eta garrantzi anbiguoak dituzte —hau da, interpretazio desberdinak, eta, hala, naturaren eta kulturaren arteko posizio batean kokatzen dira emakumeak—.

Ortnerren argitalpen hori (1974) antropologia feministaren sorrerako lanen artean dago. Obra horrek eztabaida handia piztu zuen bi baieztapen polemikorengatik: batetik, emakumeen mendekotasuna unibertsala dela, eta, bestetik, emakume/gizon eta natura/kultura arteko homologiak azaltzen duela gizonak menderatzaile izatea. Jasotako kritiketatik abiatuta eta hogeitau urte baino gehiago igaro ondoren, egileak beste saiakera-lan bat argitaratu zuen 1996an: *So is female to male as nature is to culture?* Testu horretan, aitortzen du gehiegizko garrantzia eman diela gizonen nagusitasun-adierazleei, kultura oso batean gizonak nagusi direla adierazi baitzuen. Mendebaldeko gizarteetako berdinaletasunari buruzko argudioetan, Ortnerrek 1989an argitaratutako “Gender hegemonies” artikuluan planteatutako ideia batzuk erabiltzen ditu. Ortnerren ustez (1989), unibertsalismoari buruzko eztabaidaren inguruan jasotako kritikek prestigioari dagokionez soilik murriztu dute genero-asimetria, eta ez dira aintzakotzat hartu beste

² Amerikako Antropologia Elkartearen 1972ko kongresua, Toronton egina. Aipatutako autoreen hitzaldiak Michelle Rosaldo eta Louise Lamphereren argitalpenetan kaleratu ziren (*Women, culture and society*, 1974). Elixabete Imazek hauxe adierazten du (2015: 121): “liburu hori lan aitzindarizat jotzen da antropologia feministaren esparruan, eta ekarpen oso garrantzitsua da diziplinaren androzentris-moa kritikatzeko”. Ikusi gaztelaniaz: Harris eta Young (*Antropología y feminismo*, 1979).

³ Aipatzekoa da natura/kultura bereizketa Lévi-Straussen ikuspegi sinboliko-estruturalistan kokatzen dela, etxekoa/publikoa oposizioak gehiago jarraitzen diola ikuspegi estruktural-funtzionalistari —ahaidetasun-ikasketetan nagusitu zen bezala—, eta ugaltzea/ekoiztea dikotomia, azkenik, ikuspegi funtzionalista-marxistatik eratorria dela (Yanagisako eta Collier, 2007).

funtsezko bi dimentsioak, hau da, menderatze maskulinoa eta botere femeninoa. Egileak dioenez, generoari dagokionez gizarte berdinzaleagoak aurki daitezkeen arren, berdintasuna beti da ezegonkorra eta hauskorra. Bere planteamenduaren arabera, gizarte batzuetan presente daude "menderatze maskulinoaren" elementuak, baina modu zatikatuan, ez daude artikulatuta ordena hegemonikoan eta ez dira gailentzen eskusibotasun edo nagusitasun maskulinoaren diskurtso eta praktika sozialetan (Ortner, 2006).

Hala, xedapen funtzionalen, botere-dinamiken eta gorputz-faktoreen elkarrekinza konplexu baten emaitza gisa uler daiteke menderatze maskulinoa. Berresten du emakumeek betetzen dutela naturaren eta kulturaren arteko bitartekaritza-lekua, eta, ildo horretan, hauxe dio egileak: "genero-harremanak beti kokatzen dira naturaren eta kulturaren arteko mugaleroetako batean gutxienez; hau da, gorputzean" (Ortner, 2006: 18). Ikuspegi horretatik, Ortnerrek uste du kultura askotan, ezpada guztietan, natura/kultura eta emea/arra homologia elkarrekiko metaforizazio-harreman bat dela. Ildo horretan, generoa hizkuntza ahaltsua da naturaren eta kulturaren, sexualitatearen eta ugalketaren, boterearen eta babesgabetasunaren, edo jardueraren eta pasibotasunaren arteko harremani buruz hitz egiteko.

Ortnerrek emakumeen mendekotasunari eta menderatze maskulinoari buruz egindako hausnarketak kontuan hartuta, kontzeptu hauetara hurbilduko gara hurrengo epigrafeetan, egileon eta haien ikuspegien bidez: sexua/generoa sistema eta ahaidetasun-sistemak (Rubin, 1975), generoa eta boterea (Scott, 1986), eta generoa eta ahaidetasuna (Yanagisako eta Collier, 1987). Horiei esker, genero-eta ahaidetasun-harremanak prestigio, botere eta hierarkia sozialeko sistema gisa ulertu ahalko ditugu.

4. Gayle Rubin: sexua/generoa sistema eta nahitaezko heterosexualitatea

Gayle Rubinek 1975ean argitaratutako "The traffic in women: notes on the 'political economy' of sex" saiakera hartzen da, gaur egun, generoa gizarte-zientzietan analisi-kategoria gisa erabiltzen hasi zen obra klasikotzat (Lamas, 1986; Izquierdo, 1998; Braidotti, 2000; Maquieira, 2001; Stolcke, 2014). Artikulu honetan, egileak formulazio teoriko berri bat proposatzen du, emakume-trukeari buruzko hurbilketa antropologiko kultural batetik abiatuta. Hori sexua/generoa sisteman trinkotzen da, eta erreferentziatzko kontzeptu bihurtzen da genero-azterlanetarako eta sexuaren ekonomia politikoari buruzko analisi feministarako (Braidotti, 2000; Maquieira, 2001).

Simone de Beauvoirren (1949) metodologiari jarraituz, egileak zenbait iturri epistemologikorekin eztabaidatzen du, hala nola materialismo historikoarekin, antropologiarekin eta psikoanalisiarekin. Hala, emakumeen zapalkuntzaren eta mendekotasun sozialaren sorrerari buruzko bere

teoria lantzen du, zeinak kritika sendoa egiten baitie esentzialismo biologikoari eta heteronormatibitateari (Stolcke, 2014). Teoria marxista aztertuz, Rubinek (1986) adierazten du Marxen mundu sozialean gizakiak langileak, nekazariak edo kapitalistak direla. Emakumeak langile, esplotatu edo besterendu izatea ez zen garrantzitsua kapitalismoaren azterketa historikoan. Hori horrela, joera androzentristak nabari dira, maskulinitasuna baita balio hegemoniko nagusia haren teoria sozialean. Emakumeak familia-kontsumoaren administratzaile gisa ulertzen dira, eta, azken buruan, lan-indarraren erreserba gisa. Alde horretatik, dinamika kapitalistaren erdigunean kokatzen da emakumeen zapalkuntza, eta etxeko lanaren eta eskulanaren ugalketaren arteko harremana adierazten du (Rubin, 1986). Azterketa horretan, etxeko lana elementu erabakigarria da langilearen ugalketa-prozesuan, hau da, pertsona bihurtzeko lan gehigarri bat: nork eusten eta mantentzen du etxeko bizitzaren eguneroko dinamika? Horixe da emakumeek kapitalismorako duten balio erabilgarria eta emakumeak zapaltzearen funtsezko arrazoietako bat.

Ondorioz, esan daiteke emakume bat, emazte den aldetik, etxera ogia eramaten duenaren funtsezko premia bat dela: "elementu historiko eta moral" horrexek ematen dio kapitalismoari maskulinitasun-eta femeninitasun-formen herentzia kulturala" (Rubin, 1986: 101). Ikuspegi horretatik, egileak dio gizarte orok duela sexuaren, generoaren eta ugalketaren antolamendua tratatzeko modu sistematikoa. Ildo horretatik, honela formulatzen du sexua/generoa sistemaren kontzeptua: "xedapen-multzo bat, zeinaren bidez esku-hartzeko soziala baliatuz osatzen baita sexuaren eta giza ugalketaren lehengai biologikoa, eta modu konbentzionalean asetzen, nahiz eta bitxiak izan konbentzio horietako batzuk" (Rubin, 1986: 102-103). Beste era batera esanda, sexua/generoa sistemak bizitza sozialaren alderdi espezifiko bati egiten dio erreferentzia; alderdi horri esker aztertu daiteke zer-nola bihurtzen den sexuaren lehengai hori—desberdintasun-harreman sozialen bidez—debeku-, betebeharrak eta eskubide-sistema, bereizita gizonentzat eta emakumeentzat. Rubinen arabera (1986), sistema horrek arau sozialak, eguneroko praktikak eta irudikapenak ezartzen ditu, baita lanaren banaketa sexuala eta identitate subjektiboak ere. Generoa, beraz, botere-harremanetatik abiatuta sozialki ezarritako banalerro gisa ulertzen da. Ildo horretan, Virginia Maquieirak (2001: 163) nabarmendu du generoak zera ezartzen duela, "espazioak, zereginak, nahiak, eskubideak, betebeharrak eta prestigioa esleitzen dituen banalerro bat. Subjektuen ekintza-aukerak eta baliabideetarako sarbidea ahalbidetzen edo debekatzen, definitzen eta mugatzen dituzten esleipenak eta aginduak".

Lévi-Straussek 1949an *Les structures élémentaires de la parenté* lanean argitaratu zituen ahaidetasun-harremanak aztertuta, Rubinek (1986: 106) interpretatzen du "ahaidetasun-sistemak sexua/generoa sistemen forma enpiriko eta behagarriak direla". Hala, ulertzen da ahaidetasun-sistemak,

beste helburu sozial batzuen artean, sozialki antolatutako sexualitate-modu zehatzak eratzten eta erreproduzitzen dituztela, eta aldatu egiten direla kultura batetik bestera. Esan daiteke ezen, Lévi-Straussen arabera, naturaren eta kulturaren arteko aliantza eta topaketa dramatikoak zela ahaidetasuna ezartzeko alderdirik garrantzitsuena, ugaltzearen bidez. Era berean, egilearen ustez, aliantza edo ahaidetasun-instituzio horrek "mantentzen zuen taldeen arteko harremana, eta ez gizabanakoen artekoa soilik" (Tovar, 2018: 28). Zehazki, Rubinek dioenez (1986: 112), "mundu naturalaren parte baten gainean helburu sozialak inposatzea da ahaidetasun-sistema bat". Hau da, objektuak/pertsonak ekoiztea, modelatzea edo eraldatzea esan nahi du haren ustean. Gainera, egokitzen jotzen du Lévi-Straussen "emakume-trukea" kontzeptua erabiltzea, "emakumeen zapalkuntza gizarte-sistematan kokatzen baitu, eta ez hainbeste biologian" (Rubin, 1986: 111). Badirudi egile horrek kaleratutako ekarpenaren izenburuan bertan markatu duela bere jarrera politikoa: "emakume-trafikoa" (Rubin, 1986).

Egileak identifikatzen duenez, gizarte patriarkalean emakumeen zirkulazioa da ordena patriarkalari eusten dion genero-sistemen gakoa, eta horrek intzestuaren tabua aipatzen du exogamiaren sorburu gisa. Ildo horretan, generoak sexu batekin identifikatzea ez ezik, sexu-desioa beste sexura bideratzea ere eskatzen du, eta, hala, nahitaezko heterosexualitatea sortzea, ahaidetasun-erregelen eta -arauen ondorioz. Era berean, psikoanalisi "ahaidetasuna ugaltzeari buruzko teoria bat" dela azaltzen du (Rubin, 1986: 118). Egilearen iritzian, ahaidetasun-sistematan atxikitzeak pertsonen psikean uzten dituen aztarnak aztertzen dira psikoanaliaren bidez, hau da, sexualitateak akulturazio-prozesuetan duen eraldaketa interpretatzen da (Rubin, 1986).

The traffic in women lanean, Rubinek ez du aipatzen sexu-desioaren eta generoaren arteko bereizketa, biak produktu sozial gisa hartzen baititu, ahaidetasunean oinarritutako antolaketa sistematan elkarri lotuta. Hala ere, hamarkada bat geroago (1984an), autore berak beste saiakera-lan bat argitaratu zuen, eta bereizketa hau nabarmendu zuen: "Thinking sex: notes for a radical theory of the politics of sexuality". Rubinek kapitulu horretan adierazten duenez (1989: 54), "sexua eta generoa, lotuta egon arren, ez dira gauza bera, eta praktika sozialaren bi arlo desberdinen oinarria dira". Hala, egileak zalantzan jartzen du sexuaren eta generoaren arteko fusioa, baita erraz truka daitezkeen termino gisa erabiltzea ere. Horregatik, generoa eta sexualitatea bereizita aztertzea proposatzen du, haien dimentsio sozial desberdinak fidagarritasun handiagoz islatzeko, eta, ondorioz, genero-hierarkia eta sexu-estratifikazioa bereizteko.

Sexu-estratifikazioko sistema horretan, banalerro bat planteatzen du: alde batetik, "sexualitate on, normal, osasungarri, natural eta sakratuaren" arteko muga imaginario bat gordetzeko beharrezkotzat jotzen dena, harreman heterosexualetan ezkontzarekin aitortua, eta, bestetik, "sexualitate madarikatu, anormal,

kaltegarri, antinatural eta bekatuzko" bat, ezkontzatik kanpora identifikatua eta birsortzera bideratua ez dena. Hala, sexualitatea eta generoa politikoak direla argudiatzen du; "izan ere, sexualitatea gizabanako eta jarduera batzuk bultzatzen eta saritzen dituzten botere sistematan antolatuta dago, eta, aldiz, zigortu eta ezabatu egiten ditu beste batzuk" (Rubin, 1989: 56). Are gehiago, José Ignacio Pichardok dioen bezala (2009: 37), "egitura konplexuak dira ahaidetasuna eta sexua/generoa sistema —biak ere elkarri lotuak, sexualitatearen eta ugaltzearen kontrolaren parte baitira—, eta helburu analitikoekin azpibanatu behar dira, nahiz eta etengabe interakzioan ageri diren". Finean, Gayle Rubin aitzindaritzat jo daiteke generoaren eta ahaidetasunaren arteko artikulazioa problematizatzen, baita sexua/generoa sistemaren eta nahitaezko heterosexualitatearen kontzeptuak proposatzen ere.

5. Joan W. Scott: botere-harremanak eta kategoria kritikoa

1980ko hamarkadan, bi faktore nagusik eragiten dute ikerketa-esparru honen hazkundean eta dibulgazio zientifikoa: batetik, mendebaldeko mundu akademikoan genero-ikasketak instituzionalizatzeko prozesuak, eta, bestetik, horien legitimitatea bilatzeak (Braidotti, 2000). Testuinguru horretan argitaratu zen 1986an Joan W. Scotten "Gender: a useful category of historical analysis" artikulua, zeinak generoa kategoria analitiko gisa ulertzea baitakar berekin, hau da, ikertzeko gai eta arazo berriak identifikatzeko gauza den tresna kritiko gisa (Maquieira, 2001).

Boterearen analisi postestrukturalista batetik abiatuta, Scottek (1996: 289) honela ulertzen du generoa: "sexuak eta generoa botere-harreman adierazgarrien lehen forma gisa bereizten dituzten desberdintasunetan oinarritutako gizarte-harremanen osagaia". Ikuspegi horretatik, genero-kategoriak, subjektu indibidualak ez ezik, gizarte-antolaketa ere inplikatu du. Egilearen interpretazioari jarraituz, generoak lau dimentsio ditu eta haien bidez jarduten du: 1) irudikapen askotarikoak eta maiz kontraesankorrak dituzten sinbolo kulturalak; 2) sinbolo kulturalak interpretatzeko aukera metaforikoak mugatzen eta biltzen dituzten kontzeptu normatiboak (doktrina erlijiosoak, hezkuntzakoak, zientifikoak eta abar), zeinek modu unibokoan baieztatzen baitute maskulinoa/femeninoa esanahia; 3) ahaidetasun-sistemak eta familia (mikroegiturak), ekonomia, hezkuntza eta politika (makroegiturak); eta, azkenik, baina ez horregatik garrantzi txikiagoarekin, 4) historizatutako identitate subjektiboa. Ildo horretan, generoa aldi berean eraikitzen eta berreraikitzen da dimentsio eta eremu hauetan guztietan: familia-harremanetan, lan-merkatuan, hezkuntzan, komunikabideetan, politikan eta artean; baita diskurtso kritikoetan ere, eta modu garrantzitsuan, gainera.

Scottek genero kontzeptua kategoria analitiko gisa garatzearen alde egiten du behin eta berriz, eta horren azalpena da gainditu egin behar direla haren

erabilera deskriptiboa (emakumeen ordezko soil gisa) eta sexua/generoa dikotomiatik sortzen den erredukzionismoa (biologia/kultura gisa ulertuta). Kategoria horrekin, "sexu-desberdintasunaren terminoen benetako historikotasuna eta dekonstrukzioa lortu nahi ditu" Scottek batez ere (1996: 286). Hala, "dekonstrukzio" terminoari Jacques Derridak emaniko definizioa erabiltzen du egile honek; hau da, "edozein oposizio bitarrekin jarduten duen modua testuingurua kontuan hartuta aztertzea, eraikuntza hierarkikoa alderantzikatuz eta desplazatuz, erreala edo gauzen izaerari dagokiona dela onartu beharrean" (Scott, 1996: 286).

Scotten ikuspegitik, generoa botere-harreman adierazgarrien forma primarioa ere bada. Egileak adierazten duen bezala, "mendebaldeko tradizioetan, tradizio judu-kristauetan eta islamiarretan, boterearen esanahia errazteko modu iraunkor eta errepikakorra" (Scott, 1996: 292). Generoaren dimensio analitiko hori funtsezkoa da, gizarte-bizitzaren pertzepzio sinbolikoaren eta antolaketa zehatzaren erdigunean kokatzen baitu eta botere-banaketak ezartzen dituzten erreferentziak sortzen baititu; hau da, gizarte-subjektuen artean desberdintasunak sortzen dituzten baliabide material eta sinbolikoaren gaineko kontrol edo sarbide diferentzialak (Scott, 1996).

Baina generoak, bereizketa garrantzitsua egiteko lehen forma gisa ulerturik, oposizio bitarrak legitimatzeko funtzioa du: generoak legitimatu eta eraiki egiten ditu harreman sozialak. Erronka teorikoa ez da genero maskulino/femeninoaren eredu hegemonikoa deseraikitzea bakarrik, baita generoaren eta gizartearen arteko elkarrekiko harremana ulertzea ere; hau da, nola eraikiten duen politikak generoa eta nola eraikiten duen generoak politika testuinguru espezifikoa, eta, besteak beste, klase sozialarekin, arrazarekin eta erlijioarekin lotuta.

Ikasketa feministetan klasikitat jotzen den 1986ko testutik abiatuta, Scottek 2010ean berrikuspen autokritiko bat egin zuen, eta berriz galdetu zion bere buruari: "Gender: still a useful category of analysis?". Artikulu horretan iradokitzen duenez, genero hitzaren erabilera historian, herri-hizkeran ezabatu egin dira generoaren eta sexuaren arteko mugak. Hala, bat dator Rubin (1989) hausnarketarekin, zeina aurreko epigrafean jaso baitugu. Scotten iritzian (2011: 100), generoa zera da, "normatibotasunaren eta psikikotasunaren artean eta sexualitatearen inguruan ageri den harreman zaila aztertzea; fantasia kolektibizatzen eta, aldi berean, helburu politiko edo sozialen baterako erabiltzen saiatzea". Egileak dioenez, prozesu horretan "generoak sortzen ditu sexuarentzako esanahiak eta sexu-desberdintasunak, eta ez sexuak generoarentzako esanahiak" (Scott, 2011: 100). Beraz, esan genezake generoa dela sexurako gakoa.

Generoak gizarte-azterketan kategoria erabilgarria edo baliozkoa izaten jarraitzen ote duen galdetzean, Scottek (2011) dio generoa erabilgarria dela kategoria gisa, baina eztabaidatzeari dagokionez bakarrik. Esanahiak historikoki nola ezartzen diren, gizarte-

praxian zer inplikatzeko duten eta zer lengoaiaren bidez eta zer testuingurutan gertatzen diren jakiteko galdera-multzo ireki bat den bitartean, baliagarri izaten jarraituko du, potentzial kritikoa duen kategoria bat baita.

Jarraian, eta Yanagisakok eta Collierrek (1987) planteatzen duten genero- eta ahaidetasun-harremana aurkezten da, eta berriro pentsatzen da generoak eta ahaidetasunak elkar eraikitzeak duten moduari buruz (Yanagisako eta Collier, 1994). Zenbait gogoeta garaikidek indartu egiten dute generoaren eta ahaidetasunaren arteko artikulazioaren ideia hori, Teresa del Valle (2010), Aurora González Echevarriak (2010) eta Verena Stolckek (2014) azaltzen duten bezala.

6. Jane F. Collier eta Sylvia J. Yanagisako: genero-harremanak eta ahaidetasuna

Ahaidetasun-ikasketak biziberritzea eta genero-ikasketak gizarte zientzien eztabaidaren erdigunean jartzea izan da ikerketa feministaren ekarpen garrantzitsuenetako bat. 1980ko hamarkadan, ahaidetasun-ikasketa deiturikoetan higidura bat antzeman daiteke. Horren arrazoiak izan daiteke ordura arte funtsezkotzat jotzen ziren gai batzuek gero eta interes gutxiago piztea, hala nola gizarte-egituraren ezaugarriek, ondorengotza-arauek, ezkontza-agindu edo -lehentasunak eta sistema terminologikoen (Yanagisako eta Collier, 1994). Beste era batera esanda, ahaidetasun-ikasketek utzi egiten diote gizarte-antolamenduak arduratzeari, eta, horren ordez, kultura-sinbolo eta -esanahietan zentratu dira. Horrenbestez, prozesu soziala eta subjektu agentziaduna (*agency*) deritzen ideiak txertatzen dituzte haien birformulazioetan, eta, hala, ikerketa-ildo berriak islatzen dira (Stone, 2007).

David Schneiderren lanak (1984) zeregin erabakigarria izan zuen ahaidetasunaren gainbeheran zein ernaberritzean. Autore horrek argudiatu zuen ahaidetasun-konzeptu antropologikoa ugalketa biologikoari buruzko nozio "eurozentrikoetan"⁴ oinarritzen zela (Stone, 2007). Jorge Grau Rebollok (2006) dioenez, "ahaidetasunaren berrikuntza" 1980ko hamarkadaren erdialdean hasi zen hiru zentzutan, batez ere antropologia feministak bultzatuta: 1) generoa eta ahaidetasuna elkarren artean lotura estua duten kategoria gisa ulertzeko ahalegina; 2) ahaidetasunaren birformulazioa sustatzea, kontzeptu irekiagoak, malguagoak eta ez hain eurozentrikoak erabiltzearen bidez; eta 3) generoa eta ahaidetasuna

⁴ "Eurozentrikoa" edo "mendebaldekoa" terminoek Europan eta emigrazio europarra bizi den beste herrialde batzuetan errotutako kultura-konzeptuei eta pentsamendu-moduei egiten diete erreferentzia. Kategoria horiek zehaztugabeak eta problematikoak dira, ez baitute muga geografikorik. Gainera, kultura-aniztasun handia izateak galarazi egiten du zenbait kontzepturen orokortzeak behar bezala justifikatzea edo aplikatzea kultura batetik bestera (Stone, 2007).

kategoria trabagabe eta prozesual gisa definitzea, estatiko eta finkotzat hartu ordez (Stone, 2007).

Ildo horretan, *Gender and kinship: essays toward a unified analysis* liburua, Jane F. Collierrek eta Sylvia J. Yanagisakok 1987an elkarrekin editatua, aitzindaria izan da generoaren eta ahaidetasunaren arteko "artikulazioa"⁵ planteatzen, ahaidetasun-harremanetan esku hartzen duten egiturek, sinboloek eta esanahi kulturalak genero-desberdintasunak zer neurritan sortzen eta iraunarazten dituzten argitzeo (Del Valle, 2010). Lehen kapituluak, Yanagisakok eta Collierrek (2007) kritikoki berrikusten dituzte dikotomia analitikoak; alegia, menderatze maskulinoa, emakumeen mendekotasuna, eta generoaren eraikuntza kulturala azaltzen saiatu zirenak, lehen aipatu ditugun bereizketen bidez, hala nola natura/kultura (Ortner, 1974), etxekoa/publikoa (Rosaldo, 1974) eta ugaltzea/ekoiztea (Harris eta Young, 1981). Dikotomia horien arabera, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunagatik dago errotuta generoa zenbait testuinguru soziokulturaletan, eta, nahiz eta sexu-asimetriaren unibertsaltasuna arrazoi biologikoengatik baieztatzen duten, esplizituki nabarmentzen dituzte prozesu sozialak.

Michelle Rosaldo (1974), Nancy Chodorow (1974), Sherry Ortner (1974), Olivia Harris eta Kate Youngen (1981) ekarpen horiek sexu-asimetria unibertsalaren kausa sozialak aipatzen zituzten, hau da, "gertaera biologikoen" eraikuntza soziala hartzen zuten kontuan, eta adierazten zuten, zehazki, "amatasun biologikoak" azaltzen zuela emakumeen debaluazio unibertsala. Hala ere, Rosaldok (1980) "The use and abuse of anthropology" artikuluan aitortzen du kritikatu nahi zituzten tranpa kontzeptual berberetan jausi zirela; hau da, gizonen eta emakumeen arteko funtsezko desberdintasunak nabarmentzeko eta kontrastatzeko joerari heldu ziotela, galdetu beharrean nola sortzen diren desberdintasun horiek gizarte-harremanen eta, bereziki, desberdintasun-harremanen ondorioz (Rosaldo, 1980, Maquieiran aipatua, 2001).

Beraz, esan dezakegu Yanagisakok eta Collierrek batera argitaratutako testuak (2007) zalantzan jartzen dituela erabilgarritasun analitikoari eta unibertsaltasun kulturalari buruzko dikotomiak, eta, hala, generoak markatutako dikotomia analitiko horiek gainditzea ahalbidetuko duen "aurpegi askotako estrategia" bat proposatzen duela. Aurpegi askotako estrategia hori prozesu sozial eta sinbolikoak totalitate gisa ikertzean datza, hau da, esanahiak, ereduak eta historia hiru sekuentziatan integratzen dituzten totalitate gisa: 1) kultura-esanahiak aztertzea; 2) ideien eta praktiken arteko prozesu dialektikoa azaltzea gizarte-desberdintasunak eraikitzei dagokionez; eta 3) gizarte-jarraitutasunak eta -aldaketak historikoki ulertzea.

Kontuan harturik zer kritika egiten dizkien Schneiderrek (1984) ahaidetasunaren teoria klasikoei, Yanagisakok eta Collierrek (2007) ahaidetasunaren eta generoaren arteko paralelismoak zehazten dituzte beren argudioak azaltzeko. Ahaidetasun-kontzeptua lotura biologikoen inguruko mendebaldeko aurre-suposizio kulturalak beteta zegoen; genero-kategoria, berriz, desitxuratuta zegoen ugalketaren desberdintasun biologikoei buruzko aurre-suposizio kulturalak lerratien ondorioz (Stone, 2007). Ildo horretan, "antropologo horiek beren aurreko feministek baino modu erradikalagoan bereizi zituzten 'sexua' eta 'sexualitatea', generoaren gertakari biologiko gisa, ikusmolde soziokulturaltzat jota" (Stolcke, 2014: 180). Ikuspegi horretatik, nabarmentzen da gizonen eta emakumeen artean biologikoki definitutako sexu-desberdintasunak konstruktua kulturalak direla aldi berean (Stone, 2007).

Hori horrela, Schneiderrek ahaidetasunari buruz interpretatutakoa erreplikatu nahi zuten egileek; hau da, kultura bakoitza bere harremanei buruzko *emic* ikusmoldeetatik ikertu behar dela testuinguru soziokultural bakoitzean. Schneiderrek ahaidetasuna esparru soziokultural bereizgarritzat jotzen zuen; Yanagisakok eta Collierrek (2007), aldiz, adierazten dute generoa eta ahaidetasuna bi ikasketaren diskretu eta bereizi gisa kontzeptualizatu direla. Baina, egia esan, "elkar erazten dute gure gizartean" (Yanagisako eta Collier, 2007).

Idea hori aurrerapen teoriko garrantzitsua izan zen antropologian, nahiz eta kritikatu egin zuten haren ikuspegi etnozentrkoa, "gure gizartean" zuen enfasiagatik. Horretaz gainera, ohartarazi zuten erantzunik gabe gelditu zirela zenbait galdera: nola lotzen dira generoa eta ahaidetasuna? Eta zer egoera soziokultural eta politikotan? Stolckeren aburuz (2014: 184), ahaidetasunaren eta generoaren arteko loturak, gutxienez, elkarrekin lotutako hiru uno hartzen ditu barnean. Hauexek dira: 1) genero-harremanen osaera historikoa eta kulturala; 2) generoaren eta ahaidetasunaren arteko elkarrekintza ugalketa antolatzen moduetan; eta 3) interseksionalitate horien testuinguru historikoa eta estrukturala⁶.

"Gender and kinship reconsidered: toward a unified analysis" argitaratzean (1994), egileek berriro planteatu nahi dute generoak eta ahaidetasunak elkar eraikitzei buruzko ideia. Yanagisakok eta Collierrek (1994) azaltzen dutenez, emakumeen mugimenduak berriro indarra hartzearekin batera, ikertzaile feministak ahaidetasun-ikasketetara hurbildu ziren, emakumeen lekua eta aukerak ulertzeko tresna kontzeptualak bilatu nahirik. Era berean,

⁵ Aurora González Echevarriak (2010) azaldu duenez, "artikulazio" kontzeptua eredu teoriko etnografiko eta konparatibo espezifikoa eraikitzeo erabiltzen da. Eredu horien funtzio nagusia harreman teorikoak ezartzea da, eta, ikuspegi holista eta interpretatzaileago batetik, kulturaz gaindiko konparazioak egitea.

⁶ Aitortzen da "interseksionalitatea" kategoria politiko bat dela, feminista lesbiana beltzetatik sortua 1970eko erdialdean, Amerikako Estatu Batuetako feminismo hegemonikoaren "arrazaz-itsutasunari" erantzuteko. Kontzeptu horrek klase- eta arraza-desberdintasunak azaldu nahi ditu, hain zuzen ere, generoaren, klase sozialaren, arrazaren eta pertsonen bizitzako sailkapen soziokulturalak beste printzipio bereizgarri batzuen arteko elkarreraginetik datozenak (Stolcke, 2014: 181-182).

badirudi ahaidetasunaren teorikoez beren analisiak berriz aztertzeko tresnak bilatu dituztela genero-ikasketetan. Hala ere, egileak ez datoz bat genero-ikasketetan ahaidetasunaren kezka tradizionalak ulertzeko egindako azterketa-kategorien erabilera sinplifikatuarekin.

Testu honetan, Yanagisakok eta Collierrek (1994) argudiatzen dute generoak eta ahaidetasunak elkar eraikitzen dutela. Beraz, ezin dira analitikoki aztertu bata bestearen aurretikotzat; izan ere, mendebaldeko gizarteetan ahaidetasunak sortzen du generoa eta, era berean, generoak ahaidetasuna sortzen du. Alabaina, egileek ohartarazi dute gizarte guztietan ez daudela modu berean eraikita.

1990eko hamarkadan, "ahaidetasun-ikasketa berriak" lagundutako giza ugalketarako teknologia berrien sorrerarekin batera agertzen ari ziren gizarte-aldaketak hasi ziren aztertzen. Teknologia horiek zalantzan jartzen dute biologia naturala ote den. Era berean, aztergaien artean jasotzen dituzte gay eta lesbianen arteko ahaidetasunaren eraikuntza, dibortzio-indize gero eta handiagoetatik eta dibortzio-osteko ezkontza berrietatik (*remarriage*) eratorritako bizikidetzak-modu berriak, edo ahaidetasun-harreman berriek eta familia osatzeko modu berriek eragiten dituzten adopzio-prozesuen joera hasiberria (Stone, 2007; Tovar, 2018).

Antropologia feministaren ekarpen nagusiak eta generoa analisi sozialaren erdigunean kokatu duten ahaidetasun-teoriak berrikusi ondoren, komeni da orain teoria feminista garaikidea markatuko duen bira erabakigarri bati erreparatzea: identitatearen nozioaren kritika postestrukturalistari, alegia. Judith Butlerren obra da bira horren adierazpide handienetako bat. Haren proposamenak zalantzan jartzen du sexuaren eta generoaren egonkortasuna kategoriatik ontologikotik gisa, eta sexu- eta genero-identitateak modu performatiboan ulertzeko bidea irekitzen du.

7. Judith Butler: genero-identitateak iraultzea

Teoria feministen garapenean garrantzitsua da Judith Butlerren lana, 1990ean argitaratua (*Gender trouble: feminism and the subversion of identity*), zeinean planteatzen baitu sexua eta generoa eraikitako kategoriak direla. Beste era batera esanda, sexua ez da generoaren aurreko diskurtsoaren parte. Sexua eta generoa performatiboki gertatzen dira, eta, beraz, generoak ez du estatus ontologikorik, sortzen eta taxutzen den ekintzetatik kanpo (Oliva, 2005).

Generoaren forma kanonikoak koherentzia arautzen duten praktiken bidez inposatzen dira (Butler, 1990: 58). Beraz, generoaren aurkako borroka sexuari eta sexu-praktika eta -identitatei buruzko diskurtso posible guztiak kontuan hartzea eskatzen du, eta, hala, genero ugari agertuko dira, zeinak joko ironikoak eta parodia estilistikoak baitira, generoa arau gisa ezegonkortzea helburu dutenak (Maquieira, 2001).

2004an, Butlerrek zenbait saiakera-lan argitaratu zituen izenburu iradokitzaile batekin, zeinak agerian uzten baitu egilearen proposamen kritikoa, generoa kategoriatik normatibotzat hartzeari dagokionez. *Undoing gender*, egilearen hitzetan, 1990eko hamarkadaren amaieran sortu zen genero-politika berri baten eraginaren emaitza da, zeina teoria feministak eta *queer* teoriak bat egitearen ondorioz sortu baitzen, trans mugimendu zibilak kontuan hartuta. Dimorfismo sexuala eta generoaren kategoriatik egonkorak zalantzan jartzea "ni" baten beharrezko ekintza bihurtzen da. Ni hori arauen mende dago eta arauen bidez eratzen da, baina, era berean, modu kritiko eta autonomoan bizi nahi du, arauak eraldatzeko ahaleginean. Era berean, "generoa kategoriatik historikotik gisa ulertzen badugu", adierazten du Butlerrek, "onartzen dugu generoa, gorputza eratzeko modu kultural gisa hartuta, irekita dagoela etengabe eraberritzera, eta 'anatomia' eta 'sexua' ez direla existitzen esparru kulturalik gabe" (Butler, 2007: 25).

Pentsamendu postestrukturalistari lotutako analisi feministak konprometitu daude desberdintasunak azaltzen dituzten baldintza materialekin, baina giza subjektibotasunari buruzko ikuspegi eta irudikapen konbentzionalak iraultzea da haien helburu nagusia. Susan Bordo (1989), Gayatri C. Spivak (1990), Rosi Braidotti (2000) eta beste zenbait egile generoari buruzko nolabaiteko eszeptizismo feminista baten aldekoak dira, eta esentzialismo estrategikotik abiatuta identitate femenino kolektiboa proposatzen duten figurazio alternatiboak eskatzen dituzte. Hala, "emakumeak" subjektua planteatzen dute, baina ez esentzia edo jomuga biologikotik gisa, baizik eta kokapen edo posizionamendu politiko gisa (Oliva, 2005: 48-50).

Ildo horretan, Rosi Braidottik (1994) aldeztu duenez, irudimen politiko feministak jauzi kualitatibo bat behar du, eta zenbait egilek proposatu duten fikzio politikoaren indar gaitzailean sinesten du. Beste ildo batean, Donna Harawayk *cyborg*aren figurazioa proposatzen du, hau da, goi-mailako teknologiatik iruditeria bat, zeinean zirkuitu elektronikoen interkonektibitate- eta kidetasun-eredu berriak iradokitzen baitituzte: "*cyborga* organismo zibernetiko bat da, makina- eta organismo-hibrido bat: errealtate sozialeko izaki bat, baina baita fikziozkoa ere. Errealtate sozialeko gure gizarte-harremanak dira, gure eraikuntza politikorik garrantzitsuenak, fikziozko mundu aldakor bat" (Haraway, 1995: 253). Ikuspegi horretatik, egileak aurrez aurre jartzen dizkigu, batetik, maskulino/femenino, gizakia/makina, naturala/artifiziala dikotomia tradizionalen irudi urratzaile bat, eta, bestetik, *cyborg*aren figura hibridoa. Subjektibotasunak ebidentzia batekin bizi dira; hau da, postmodernitateko identitateak partzialak eta kontraesankorrak direla etengabe —hau da, transgresiboak eta gorabeheratsuak—.

Azken hamarkadetako literatura feministan, formulazio teoriko garrantzitsu ugari aurkitzen ditugu feminismoaren emakume subjektua kritikatzeko

parte hartzen duten subjektibotasun askotarikoak eta zatikatuak deskribatzeko: Judith Butlerren ideiak (1990) "maskaradaren politika parodiko" baterantz jotzen du, Teresa de Lauretisek (2000) "subjektu eszentrikoaz" hitz egiten du, eta Rosi Braidotti (1994), berriz, "subjektu nomadaz" mintzo da figurazio gisa. Metafora horri esker, zehatz-mehatz azter daitezke ezarritako kategoriak eta esperientzia-mailak, eta posible da, berebat, kategoria horien artean ibiltzea ere. Egileak dioen bezala: "mugak lausotu, zubiak erre gabe" (Braidotti, 1994: 30). Nabarmentzekoa da fikzio hori, irudimenaren potentzian eta garrantzian sinesten baitu garai postmoderno hauetako horditasun politiko eta intelektualetik irteteko modu gisa. Bere interpretazio girotuan, nomadismoak kontzientzia kritiko bat eraikitzea esan nahi du, zeinak uko egiten baitio sozialki kodetutako pentsamendu-eta jokabide-moduetan finkatzeari. Alde horretatik, "nomada" guztiak ez dira munduko bidaiariak; aitzitik, bidaiaria garrantzitsuenetako batzuk norbera bere lekutik fisikoki aldentu gabe gerta daitezke. Egiaz, "nomada-egoera" ezarritako konbentzioak iraultzea da, bidaiatzeko egintza literalean. Era berean, Braidottik igarotze-egoera bateko "bidelagun" gisa deskribatu ditu subjektibotasun feminista alternatiboak.

Finean, garrantzitsua izango da irudikapen berriak imajinatzea, testuinguru sozial, ekonomiko eta politiko espezifikoetan identitateak eraikitzerakoan gertatzen ari diren aldaketa txiki eta handien berri emateko.

8. Eztabaida: joerak eta jakinduria kokatuak

Ibilbide honetan, funtsezko testuak biltzen dituen genealogia teoriko bat aurkeztu dugu, generoa gizarte-zientzietako kategoria kritiko gisa nola agertu den ulertzeko. Genealogia horretan bildutako lanek —Margaret Meadek eta Simone de Beauvoirrek inauguratutako hausturek, Gayle Rubinena sexua/generoa sistemaren garapenak, Collierrek eta Yanagisakok proposatutako generoaren eta ahaidetasunaren arteko artikulazioak, eta Judith Butlerrek planteatutako generoaren performatibitateak— agerian utzi dute generoaren erabateko normatibotasuna eta, aldi berean, kritikotasuna, analisirako tresna gisa.

Hala ere, egileok geure jatorrizko lanari egin diogun eguneratze honi dagokionez (Bogino eta Fernández-Rasines, 2017), nabarmendu behar da landutako teoria eta ikuspegi gehienak testuinguru akademiko anglosaxoietatik hartuak direla, batez ere Amerikako Estatu Batuetatik eta Mendebaldeko Europatik. Joera horrek baldintzatu egiten ditu egindako galderak eta erabilgarritako esparru epistemologikoak, eta baldintzapean jartzen ditu, orobat, subjektibotasunak, botere-harremanak eta ahaidetasun-loturak kontzeptualizatzeko moduak. Ildo horretan, teoria horiek eragingarriak eta produktiboak izan diren arren, ezinbestekoa da haien ekarpenak ikuspegi kokatu batetik problematizatzeko.

Hemendik aurrera egingo diren lanetan, bi alderdi landu beharko dira. Alde batetik, kritikoki berrikusi behar da kategoria jakin batzuen unibertsalizazio implizitua, hala nola "generoa", "sexua" edo "ahaidetasuna", kulturalki eraikitako dimentsioa alde batera uzteko arriskua baitute. Bestetik, premiazkoa da testuinguru espezifikoetatik sortzen diren esparru analitikoak txertatzea eta bultzatzea, errealitate sozial zehatzei erantzun ahal izateko. Euskal Herrian, badira antropologia feministan, ahaidetasun-ikasketetan eta nortasun-politiketan finkatutako ikerketa-ildo finkatuak, eta lagungarriak dira eztabaida horiek aberasteko: batetik, beste testuinguru geopolitiko batzuetan garatutako teorien aplikazio akritikoa problematizatzeko, eta, bestetik, genero-subjektibotasunen historikotasunari eta aniztasunari buruzko galdera berriak egiteko. Hala, begirada feminista askotarikoa indartuko da, testuinguruan kokatua, eta gai izango da tradizio teoriko globalekin hitz egiteko, betiere tokiko esperientzien eta jakintzaren espezifikotasunari uko egin gabe.

9. Ondorioak

Artikulu honetan, genero kontzeptuak XX. mendearen erdialdetik ikerketa sozialean izan duen eginkizuna kritikoki berrikustea proposatu da, eta arreta berezia eskaini zaio kontzeptu normatibo eta kategoria kritiko gisa duen dimentsio bikoitzari. Birplanteamendu honen oinarria izan da egileek aurretik idatzitako testuak irakurtzea eta berrirakurtzea, irizten baitiogu funts gisa baliaturiko testuon eragina erabakigarria dela genero-ikasketen eta teoria feministen garapena taxutu duten eztabaiden esanahia eta norainokoa ulertzeko.

Testu honetan aipatu dugunez, batez ere Amerikako Estatu Batuetako feministen artean agertu zen generoa tresna teoriko gisa esparru akademikoan. Feminista estatubatuar haiek kezkatu ageri ziren emakumeak zapalduta egotearekin, menderatze maskulinoarekin eta emakumeen mendekotasun sozialarekin beren argitalpenetan, baita egoera horren itxurazko unibertsaltasunarekin ere. Ildo horretan, Ortnerrek (1974) eta Rubinek (1975) ekarpen garrantzitsuak egin zituzten gizarte-antropologiaren alorrean; izan ere, zalantzan jarri zituzten mundu sozialaren eta ahaidetasun-sistemen ikuspegi androzentrikoa eta existentziaren antolamendua egituratu zituzten sorrerako dikotomiak —hala nola natura/kultura, etxekoa/publikoa edo ugaltzea/ekoiztea—.

Laurogeiko hamarkadan, genero-ikasketen instituzionalizazio akademikoa erronka bat izan zen diziplina horren potentzial kritikoarentzat, baina Joan Scott (1986) eta beste zenbait egilek ikasketen erabilgarritasun epistemologikoa defendatu zuten kategoria analitiko gisa. Izan ere, esanahi sozialak, sexu-desberdintasuneko sistemak eta horien euskarri diren botere-harremanak deskribatu daitezke haien bidez, baita galdekatu ere. Gaitasun kritiko horrek indarrean jarraitzen du, baldin eta generoa etiketa

finko gisa erabili beharrean eztabaidatzeko tresna gisa erabiltzen bada.

Era berean, Collier eta Yanagisakoren (1987) hausnarketak aurrerapen teoriko bat izan ziren, generoari eta ahaidetasunari buruzko azterketa bateratu bat proposatu baitzuten. Elkar eraikitzen dutela aitortzeari esker, ahaidetasun-harremanak determinismo biologikotik harago berrinterpretatzen dira, eta agerian gelditzen da truke-, prestigio- eta hierarkia-sistema gisa duten dimentsio normatibo eta politikoa.

Azken hamarkadetan gertatu den bira postestrukturalistak —Judith Butlerrek (1990) eginiko ekarpena, kasurako— identitatea kritikatzera bideratu du fokua, eta, generoa ez ezik, sexua bera ere zalantzan jarri dute diskurtso-eraikuntza gisa. Ikuspegi horrek askotariko subjektibotasun performatiboetarantz zabaldu du begirada, eta eremu emankor bat ireki du identitate disidenteak eta genero-arau hegemonikoekiko erresistentziak irudikatzeke. Planteamendu horietako batzuk postfeministatzat jo badira ere, eta nahiz eta leporatu dieten “emakumeak” subjektua ahuldu egin dutela agenda politikoa, uste dugu ez dakartela nahitaez desberdintasunaren baldintza materialak bertan behera uztea. Aitzitik, iruditzen zaigu bazterketa gertatzen eta errepikatzen den modu zehatzetara birbideratzen dituela galderak.

Hala ere, nabarmendu behar da berrikusitako corpus teorikoak joera anglosaxoi handia duela, eta horrek baldintzatu egiten dituela formulazioak eta oinarri analitikoak. Ildo horretan, aurrera egin behar da esparru teoriko eta metodologikoetarantz, kategoria horiek kritikoki berrikusi ahal izateko testuinguru geografiko eta kultural zehatzak kontuan hartuta. Euskal Herriaren kasuan, berriro irakur daitezke antropologia feministaren eta ikerketa sozialaren alorrean eginiko proposamen garrantzitsuak, genealogia globalak aberasteko eta tenkatzeko. Hala, ikuspegi berriak emango dira ahaidetasun-harremanei, botere-egiturei, subjektibotasun-esperientziei eta errekonozimenduaren aldeko borrokei buruz.

Hori horrela, tokiko epistemologiak kontuan hartuta birformulatu ahal eta behar dira artikulu hau egituratzen duten kategoria batzuk —hala nola genealogia feminista, generoa, sexua/ generoa sistema, ahaidetasuna eta subjektibotasun feministak—, testuinguruen aniztasuna eta lurraldean txertaturiko jakintza sortzeko beharra aitortzeko. Eginkizun hori ez da metodologikoa bakarrik, politikoa ere bada. Alde horretatik, ulertu egin behar da feminismoak bere aniztasunean duen potentzial eraldatzailea, eta zabaldu egin behar dira pentsagarritasunaren eta bizigarritasunaren mugak, definitu nahi gaituzten arauen aurrean.

- AMIGOT, P. eta PUJAL, M. (2009): "Una lectura del género como dispositivo de poder", *Sociológica*, 24. bol., 70. zb., 115.-152. or.
- BOGINO, M. eta FERNÁNDEZ-RASINES, P. (2017): "Relecturas de género: concepto normativo y categoría crítica", *Revista de Estudios de Género, La Ventana*, 5. bol., 45. zb., 158.-185. or., <<https://doi.org/10.32870/lv.v5i45.5375>>.
- BORDO, S. (1989): "Feminism, postmodernism and gender-scepticism", in NICHOLSON, L. (ed.), *Feminism/Postmodernism*, New York, Routledge.
- BRAIDOTTI, R. (1994): *Nomadic subjects. Embodiment and sexual difference in contemporary feminist theory*, New York, Columbia University Press. [gaztelaniazko itzulpena: (2000), *Sujetos nómades. Corporización y diferencia sexual en la teoría feminista contemporánea*, Bartzelona, Paidós].
- (2000): "Las teorías de género o 'El lenguaje es un virus'", in BRAIDOTTI, R., *Sujetos nómades*, Buenos Aires, Paidós, 207.-240. or.
- (2004): "Género y posgénero: ¿el futuro de una ilusión?", in BRAIDOTTI, R., *Feminismo, diferencia sexual y subjetividad nómada*, Bartzelona, Gedisa, 131.-149. or.
- BUTLER, J. (1990): *Gender trouble: feminism and the subversion of identity*, New York, Routledge.
- (2004): *Undoing gender*, Boca Raton, Routledge [gaztelaniazko itzulpena: (2007): *Deshacer el género*, Bartzelona, Paidós].
- CHODOROW, N. (1974): "Family structure and feminine personality", in ROSALDO, M. eta LAMPHERE, L. (ed.), *Woman, culture, and society*, Stanford, Stanford University Press.
- COLLIER, J. F. eta YANAGISAKO, S. J. (ed.) (2007): *Gender and kinship. Essays towards a unified analysis*, Stanford, Stanford University Press, 14.-50. or.
- DE BEAUVOIR, S. (1949): *Le deuxième sexe*, Paris, Gallimard [euskarazko itzulpena: (2019): *Bigarren sexua*, Donostia, Elkar].
- DE LAURETIS, T. (2000): *Diferencias: etapas de un camino a través del feminismo*, Madrid, Horas y horas.
- DEL VALLE, T. (2010): "La articulación del parentesco y el género desde la antropología feminista", in FONS, V.; PIELLA VILA, A. eta VALDÉS, M. (ed.), *Procreación, crianza y género. Aproximaciones antropológicas a la parentalidad*, Bartzelona, Promociones y Publicaciones Universitarias, 295.-318. or.
- FASSIN, É. (2008): "L'empire du genre. L'histoire politique ambiguë d'un outil conceptuel", *L'Homme*, 187.-188. zb., 375.-392. or., <<https://doi.org/10.4000/lhomme.29322>>.
- FEMENÍAS, M. L. (2003): *Judith Butler: introducción a su lectura*, Buenos Aires, Catálogos.
- FRAISSE, G. (2016). *Los excesos del género. Concepto, imagen, desnudez*, Madrid, Cátedra.
- GONZÁLEZ ECHEVARRÍA, A. (2010): "Parentesco y género. Intersecciones y articulaciones", in FONS, V.; PIELLA VILA, A. eta VALDÉS, M. (ed.), *Procreación, crianza y género. Aproximaciones antropológicas a la parentalidad*, Bartzelona, Promociones y Publicaciones Universitarias, 335.-357. or.
- GRAU REBOLLO, J. (2006): *Procreación, género e identidad. Debates actuales sobre el parentesco y la familia en clave transcultural*, Bartzelona, Bellaterra.
- HARAWAY, D. (1995): *Ciencia, cyborgs y mujeres. La reinención de la naturaleza*, Madrid, Cátedra.

- HARRIS, O. eta YOUNG, K. (1979): *Antropología y feminismo*, Barcelona, Anagrama.
- (1981): "Engendered structures: some problems in the analysis of reproduction", in KAHN, J. S. eta LLOBERA, J. R. (ed.), *The anthropology of precapitalist societies*, Londres, Macmillan Press; New Jersey, Atlantic Highlands.
- IMAZ, E. (2015): "The wonder years. Retazos de historia de la antropología norteamericana. Conversando con Jane F. Collier", *Ankulegi. Revista de Antropología Social*, 19. zb., 113.-125. or., <<https://aldizkaria.ankulegi.org/index.php/ankulegi/article/view/80>>.
- IZQUIERDO, M. J. (1998): "Sexo, género e individuo. El sistema sexo/género como marco de análisis", in IZQUIERDO, M. J., *El malestar en la desigualdad*, Madrid, Cátedra, 13.-56. or.
- LAMAS, M. (1986): "La antropología feminista y la categoría 'género'", *Nueva Antropología*, VIII. bol., 30. zb., 173.-198. or.
- (1995): "Usos, dificultades y posibilidades de la categoría género", *Revista de Estudios de Género, La Ventana*, 1. bol., 1. zb., 9.-61. or., <<https://doi.org/10.32870/lv.v0i1.2684>>.
- (2007): "Complejidad y claridad en torno al concepto género", in GIGLIA, A.; GARMA, C. eta DE TERESA, A. P. (ed.), *¿Adónde va la antropología?*, Mexiko B. D., Universidad Autónoma Metropolitana-Iztapalapa.
- LÉVI-STRAUSS, C. (1949): *Les structures élémentaires de la parenté*, Paris, Mouton.
- MAQUIEIRA, V. (2001): "Género, diferencia y desigualdad", in BELTRÁN, E. eta MAQUIEIRA, V. (ed.), *Feminismos. Debates teóricos contemporáneos*, Madrid, Alianza, 127.-190. or.
- MEAD, M. (1935): *Sex and temperament in three primitive societies*, New York, Morrow.
- NASH, M. (2003): "Género y construcción cultural", *Sargantana's Weblog*, <<https://sargantana.wordpress.com/genero-y-construccion-cultural-mary-nash/>>.
- OLIVA, A. (2005): "Debates sobre el género", in AMORÓS, C. eta DE MIGUEL, A. (ed.), *Teoría feminista: de la ilustración a la globalización*, 3. lib., Madrid, Editorial Minerva, 13.-60. or.
- ORTNER, S. (1974): "Is female to male as nature is to culture?", in ROSALDO, M. eta LAMPHERE, L. (ed.), *Women, culture and society*, Stanford, Stanford University Press [gaztelaniazko itzulpena: (1979): "¿Es la mujer con respecto al hombre lo que la naturaleza con respecto a la cultura?", in ORTNER, S., *Antropología y feminismo*, Barcelona, Anagrama, 1.-24. or.].
- (1989): "Gender hegemonies", *Cultural Critique*, 14. zb., 35.-80. or., <<http://doi.org/10.2307/1354292>>.
- (1996): "So is female to male as nature is to culture?", in ORTNER, S., *Making gender. The politics and erotics of culture*, Boston, Beacon Press [gaztelaniazko itzulpena: (2006): "Entonces, ¿es la mujer al hombre lo que la naturaleza a la cultura?", *AIBR. Revista de Antropología Iberoamericana*, 1. bol., 1. zb., 12.-21. or.].
- PICHARDO, J. I. (2009): *Entender la diversidad familiar. Relaciones homosexuales y nuevos modelos de familia*, Barcelona, Bellaterra.
- ROSALDO, M. (1974): "Woman, culture and society: theoretical overview", in ROSALDO, M. eta LAMPHERE, L. (ed.), *Woman, culture, and society*, Stanford, Stanford University Press.
- (1980): "The use and abuse of anthropology: reflections on feminism and cross-cultural understanding", *Signs. Journal of Women in Culture and Society*, 5. bol., 3. zb., 389.-417. or.
- ROSALDO, M. eta LAMPHERE, L. (ed.) (1974): *Woman, culture, and society*, Stanford, Stanford University Press.
- RUBIN, G. (1975): "The traffic in women: notes on the 'political economy' of sex", in REITER, R. (ed.), *Toward an anthropology of women*, New York, Monthly Review Press, 157.-210. or. [gaztelaniazko itzulpena: (1986): "El tráfico de mujeres: notas sobre la 'economía política' del sexo", *Revista Nueva Antropología*, VIII. bol., 30. zb., 95.-145. or.].
- (1984): "Thinking sex: notes for a radical theory of the politics of sexuality", in VANCE, C. S. (ed.), *Pleasure and danger: exploring female sexuality*, New York, Routledge [gaztelaniazko itzulpena: (1989): "Reflexionando sobre el sexo: notas para una teoría radical de la sexualidad", in VANCE, C. L. (ed.), *Placer y peligro: explorando la sexualidad femenina*, Madrid, Revolución, 113.-190. or.].
- SCHNEIDER, D. (1984): *A critique of the study of kinship*, Ann Harbor, University of Michigan Press.
- SCOTT, J. W. (1986): "Gender: a useful category of historical analysis", *American Historical Review*, 91. bol., 1.053.-1.075. or. [gaztelaniazko itzulpena: (1996): "El género: una categoría útil para el análisis histórico", in LAMAS, M. (ed.), *El género. La construcción de la diferencia sexual*, Mexiko B. D., Programa Universitario de Estudios de Género].
- (2010): "Gender: still a useful category of analysis?", *Diogenes*, 57. bol., 1. zb., 7.-14. or. [gaztelaniazko itzulpena: (2011): "Género: ¿todavía una categoría útil para el análisis?", *La Manzana de la Discordia*, 6. bol., 1. zb., 95.-101. or.].
- SPIVAK, G. C. (1990): *The post-colonial critic. Interviews, strategies, dialogues*, New York, Routledge.
- STOLCKE, V. (2004): "La mujer es puro cuento: la cultura del género", *Estudios Feministas*, 12. bol., 2. zb., 77.-105. or.
- (2014): "¿Qué tiene que ver el género con el parentesco?", *Cadernos de Pesquisa*, 44. bol., 151. zb., 176.-189. or., <<https://doi.org/10.1590/198053142848>>.
- STOLLER, R. (1968): *Sex and gender: on the development of masculinity and femininity*, New York, Science House.
- STONE, L. (2007): "Ocaso y renacer del parentesco. Introducción", in PARKIN, R. eta STONE, L. (ed.), *Antropología del parentesco y de la familia*, Madrid, Editorial Universitaria Ramon Areces, 407.-426. or.
- TOVAR, P. (2018): "La sangre es más espesa que el agua: perspectivas históricas y analíticas sobre los estudios del parentesco y el género", *Maguaré*, 32. bol., 1. zb., 17.-46. or., <<https://doi.org/10.15446/mag.v32n1.76161>>.
- TUBERT, S. (2003): "Introducción. La crisis del concepto de género", in TUBERT, S. (ed.), *Del sexo al género. Los equívocos de un concepto*, Madrid, Cátedra, 7.-38. or.

YANAGISAKO, S. J. eta COLLIER, J. F. (1987): "Towards a unified analysis of gender and kinship", in COLLIER, J. F. eta YANAGISAKO, S. J. (ed.), *Gender and kinship. essays towards a unified analysis*, Stanford, Stanford University Press, 14.-50. or. [gaztelaniazko itzulpena.: (2007). "Hacia un análisis unificado del género y el parentesco", in PARKIN, R. eta STONE, L. (ed.), *Antropología*

del parentesco y de la familia, Madril, Editorial Universitaria Ramón Areces, 461.-491. or.].

– (1994): "Gender and kinship reconsidered: toward a unified analysis", in BOROFKY, R. (ed.), *Assessing cultural anthropology*, New York, McGraw-Hill, 190.-203. or.



Esperientziak
Experiencias

